

TANTAKA: POLITIKO OHORETSU HAUEK



Venezuelan Leopoldo Lopezi, eskuineko eta dirudun politikari 14 urteko kartzela zigorra ezarri zaio gobernuaren kontra borrokatzeagatik. Egun hauetan zigorra horren kontrako helegitea aztertu behar duen Caracaseko Gora Jotzeko Auzitegiak, Venezuelako sartzeari galarazi die euren abokatuak. Gertaera hau salagarria da, dudarik ez, pertsona orok badugu eskubidea gure konfidantzazko abokatuak aukeratzeko.

Berri tamalgarri hona ekarri dut, ez Leopoldo Lopezi sinpatia diodalako, ezta pentsatu ere! Kontua da abokatu defendatzaileen artean Alberto Ruiz-Gallardon dagoela. Berritara Espainako politikari ohoretsu bat Venezuelako aferetan sartuta. Felipez Gonzalek ere aurpegia eman du Lopezeren alde, eta Zapatero bitartekaritza lana egiten ari da Venezuelako gobernuaren eta oposizioaren artean. Nik ez dut esango eskubidea ez dutenik honelako ardurak ez hartzeko. Pena da ikustea eskuineko politikak aparte ez zaie ikusten inor gehiagorik defendatzen. Niregatik kartzelak guztiak hutsik egon lirateke, askatasuna da bide justuena arazoak konpontzeko, eta pertsona bat kartzelan sartzen dugunean ez diogu inolako faborerik egiten askatasunari.

Onartuko didazue esatea, Espainako ministro eta lehendakari ohiak ez ditut inoiz ikusi interesatua Marokon gertatzen denarekiko. Espainako auzokide estatu honetan egunero urratzen dira giza eskubideak, sindikalistak, ezkerreko pertsonak, Sahara herrian eten gabe atxilotuak, torturatuak eta desagertuak dira. Espainan bertan inoiz ikusi ditugu CIE bat bisitatzen?, han barnean gertatzen dena salatzen? Asko dira adibideak, mundu barna leku askotan askatasuna preso dago eta beti jende xumea da libertatearen alde borrokatzen duena, eta inoiz ez politikari lerdetsuak eta sasidemokrata hauek.